

Balorezko proposamena

Erosketen zerrenda egiteko eta hainbat pertsonen artean konpartitzeko modu erraz bat eskaintzen dugu. Arazo baten soluzioa bilatzen dugu aplikazio honekin. Zenbat aldiz egin dute zure etxekoek erosketa eta etxera iritsitakoan erosi ez duten produktu baten falta nabaria sentitzen duzu? Gure proiektuak egoera horretan berriz ez egoteko du finkatua ideia.

Orain arte ez dago beste edozer antzeko zerbait eskaitzen duenik, eta horrela, merkatuan gure produktua arazorik gabe finkatzeko aukera ikusten dugu. Aplikazio originala eta batez ere praktikoa da, zure familia edota lagunekin erosketen zerrenda konpartitzeko eta bakoitzak bertan nahi duen produktua itsasteko aukera baitu.

Balore kualitatiboa aplikazioaren diseinua izango litzateke, ez baitago besterik gure antzeko zerbait egiten duenik.

Gure konpetentziak izan daitezken besteengatik bereizten gaituena aplikazio honek egunerokotasunean eman daitezken arazo edota lanak erabat errazten dituela da. Aplikazio espezializatua izango da erosketa zerrendak egiteko, non zerrenda amaieran produktu guztien baturaren prezio estimatu bat agertuko den.